



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

Batzar Nagusietako Nekazaritza eta Ingurumeneko Batzordea

Nekazaritzako Foru Diputatu andreak dino Karrantzako mindategirako dirulaguntzak indarrean dagoan legediraren arabekoak izan dirala

Karrantzako Minda enpreseari emondako milioi 2 euroak berreskuratzeko administrazino-espedita hasi eban Aldundiak martian, eta horrei gehitu egin behar jakez beste 292.000 euro berandutza-korrituak dirala-ta.

Bilbon, 2012ko urriaren 24an

Nekazaritzako Foru Diputatua, Irene Pardo andrea, Batzar Nagusietan izan da gaur azaltzeko zein dan Karrantzako Mindategia eregiteko lanen egoera, dirulaguntza publikoak kendu jakezanetik geldituta dagoana 2010. urteaz geroztik. Diputatu andreak esan deutso Nekazaritza eta Ingurumeneko Batzordeari Aldundiaren dirulaguntzak itzultzeko prozedureak bere horretan jarraitzen dauela. Martian hasitako administrazino-espedita ejekuzinobidean dago, eta hor eskatu egiten jako Karrantzako Minda sustatzaileari itzultzeko emon jakezan dirulaguntzak, milioi 2 eurokoak hain zuzen, eta horrei gehitu egin behar jakez beste 292.000 euro atzerapenagaitik. Pardo andreak esan dau Aldundiak beti jokatu dauela administrazino-jardunbideak agindutakoaren arabera eta aldezaurretik Nekazal Garapeneko Zerbitzuak egindako txosten teknikoa aintzat izanda, eta esan dau be “dirulaguntza indarrean dagoan legediraren arabekoak izan dala”.

Aldundiaren dirulaguntza berreskuratzeko zer egin dan galdetuz Bildu Taldeak eta Bizkaiko Talde Popularrak eskatuta batzorderatu da Diputatu andrea. Arturo Aldecoa batzarkide popularrak dirulaguntza hori berreskuratzeko eginbeharrekoei “ekiteko” eskatu deutso Aldundiari, eta generatu dau holakorik “ezin dala barrero be gertatu”, administrazinoaren kontrol-gaitasuna eta politikarien sinesgarritasuna dagozalako jokoan.

Bildu Taldeko Aitor Torre batzarkidea kritikoagoa izan da eta esan dau Aldundiak erantzukizun argia daukala zenbait enpresa eta pertsonaren “poltsikoak betetzean”. Bilduko batzarkidearen esanetan “ohitu egin gara kudeaketa txarra doan urtetara” eta eskatu deutso Aldundiari bertaratu daitela auzian “lapurrak giltzapean” jarteko.

Iñaki Egaña Taldeburu sozialistaren ustez, gai honen inguruan Batzar Nagusiek Herri - Kontuen Euskal Epaitegiari eskatutako ikuskaritzaren ondorioak “errieta dira



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

guztientzat kontrol ezagaitik”. Esan dau be “itxikeria” eta “eskandalugarria” dala pertsona bakar baten eskuetan iztea mindategia eregiteko lanen kontrola.

Karrantzako mindategia joandako agintaldian hasitako egitasmo publikoa da eta helburutzat eukan Karrantza Haranerako abeltzaindegiek sortutako 373.560 metro kubiko hondakinei ingurumen-konponbidea emotea. 2010. urtean lanak gelditu ondoren, Bizkaiko Batzar Nagusiek ahobatez onartu eben 2011ko martian egindako Osoko Batzarrean Karrantzako Minda enpreseari emondako dirulaguntza publikoen ikuskaritza egiteko eskatzea Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari.

Osokoan ahobatez onartu eben Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari eskatzea fiskalizatu dagizala Karrantzako Minda enpreseak administrazio publikoetatik (Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuak) jasotako laguntza, dirulaguntza eta mailegu guztiak. Ordurako, erakundeok 10 milioi eurotik gora jarrita ebezan sozietate horri zuzendutako dirulaguntza, bestelako laguntza eta mailegutuan. Ordurako be, Lakuako Gobernuak esandakoaren arabera, mindategia egiteko aurrekontua bikoiztuta egoan, egin-eginean 2006. urtean eukan 12 milioi euroko aurreikuspenetik 2010. urtean 25,8 milioikora helduaz.

Abere solteak La Arboleda eta Triano aldean

Aurreko gai hori baino lehenago, Meatzaldean solte dabilzan abereen arazoari buruz be eztabaidatu dau Nekazaritza eta Ingurumeneko Batzordeak. Euzko Abertzaleak Taldeak eta Bildu Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen biak onartu dira eta, lehenengoan, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen jako jarraitu dagiala inplikatzeko, eragindako udalakaz batera, La Arboleda eta Triano aldean abereak solterik ibilteak eragindako arriskuak konpontzeko. Bilduren proposamenan eskatzen da auziari konponbidea emongo deusan mahaia sortzea, non ordezkaturik egon daitezkan Foru Aldundia, hiru udalak (Trapagaran, Ortuella eta Abanto-Zierbena) eta abeltzainen alkarteak.

Lekeitioko irla

Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztu dauen beste Arauz Besteko Proposamen bat ahobatez onartu dau Batzordean. Horren bitartez, eskatu egiten jako Foru Aldundiari inplikatu daitela “Lekeitioko irlako itsasaldeko landaredi-azalera etorkizunean berreskuratzen”, Talde horren aburuz pinu maritimoz osaturik han dagoan basoa “azkenetan” dagoalako, Aldundiak berak egindako txostenean agertzen dan lez. Batzarkide-Talde horrek aurkeztutakoaren arabera, Aldundiari eskatzen jako aukeren artean aztertzea ea kantaurialdeko artadia berreskuratu daitekean, irla horren eguraldiari, zoruari eta baldintzei erreparatuta egokiagoa dalako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

NOTA DE PRENSA

Comisión de Agricultura y Medio Ambiente de las Juntas Generales

La diputada de Agricultura dice que las subvenciones forales a la planta de purines de Karrantza se ajustaron a la legalidad vigente

- **La Diputación inició en el mes de marzo un expediente administrativo para recuperar los 2 millones de euros otorgados a la empresa promotora Karrantzako Minda, a los que se suman ahora 292.000 euros en concepto de intereses de demora.**

Bilbao, a 24 de octubre de 2012

La Diputada foral de Agricultura, Irene Pardo, ha acudido a las Juntas Generales de Bizkaia para explicar la situación en la que se encuentra el proceso de construcción de la planta de purines de Karrantza, paralizado en el año 2010 como consecuencia de la retirada de las subvenciones públicas. La responsable foral ha comunicado a la Comisión de Agricultura y Medio Ambiente que el mecanismo de devolución emprendido por la Diputación para recuperar la ayuda foral de 2 millones de euros concedida a la empresa promotora Karrantzako Minda, sigue su curso. El expediente abierto a esta empresa se encuentra en la fase ejecutiva, y en el mismo se reclaman otros 292.000 euros en concepto de intereses por demora. Pardo ha aclarado que la Diputación ha actuado siempre siguiendo los pasos administrativos y previo informe técnico del Servicio de Desarrollo Agrario, y ha afirmado que en su día la subvención se "ajustó a la legalidad vigente".

La responsable foral ha acudido a la Comisión correspondiente de las Juntas Generales a petición de los grupos Bildu y Popular Vizcaíno que pedían aclaraciones respecto a las gestiones realizadas por la Diputación para recuperar la subvención foral concedida a Karrantzako Minda para construir la planta de purines. El apoderado del Grupo Popular, Arturo Aldekoa, ha pedido a la Diputación que "insista desde el punto de vista legal" para recuperar esta ayuda y ha dicho que este caso "no se puede repetir" al estar en juego la capacidad de control de la administración y la credibilidad de la clase política.

El Grupo Bildu se ha mostrado más contundente al señalar que la Diputación tiene una responsabilidad manifiesta al "engordar los bolsillos" de ciertas personas y empresas. El apoderado de Bildu Aitor Torre, ha manifestado que "nos hemos acostumbrado a que la mala gestión salga gratis", en referencia a la falta de control de la Diputación. Ha



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

pedido a la institución foral que se persone en la causa para poner a los “chorizos entre rejas”.

Para el portavoz socialista Iñaki Egaña, las conclusiones de la auditoría del Tribunal de Cuentas Públicas (TVCP) solicitada por las Juntas Generales con respecto a este tema, es un “rapapolvo a todos por la ausencia de control”. Es una “desidia” de la Diputación y un “escándalo” que el control sobre la construcción de la planta de purines se dejara en manos de una sola persona, en referencia al responsable de Karrantzako Minda.

La planta de tratamiento de purines de Karrantza es un proyecto con financiación pública que comenzó a fraguarse en la legislatura pasada para solucionar el problema medioambiental que suponía la generación de 373.560 metros cúbicos de residuos al año por parte de las explotaciones ganaderas del valle de Karrantza. Tras paralizarse las obras en el año 2010, la cámara vizcaína aprobó por unanimidad en un pleno celebrado en marzo del año pasado, solicitar al TVCP la fiscalización de las subvenciones públicas otorgadas a Karrantzako Minda.

En el escrito, corroborado por todos los grupos junteros, se indicaba que las administraciones públicas implicadas en la financiación del proyecto (Diputación Foral, Gobierno vasco y Gobierno español) habían aportado más de 10 millones de euros en subvenciones, ayudas o préstamos a dicha sociedad, cuestión que ha confirmado el TVCP en su informe. Ya por aquel entonces, el presupuesto de construcción de la planta de purines se había “duplicado” según el Gobierno Vasco, pasando de los 12,2 millones de euros en 2006 a los 25,8 millones en 2010.

Animales sueltos en La Arboleda y los montes de Triano

Previamente a la comparecencia de la Diputada, la Comisión de Agricultura y Medio Ambiente ha aprobado dos proposiciones no de norma, una del Grupo Nacionalistas vascos y otra de Bildu, para que la Diputación Foral se implique, junto con los municipios afectados, en solucionar el problema de inseguridad viaria que genera el ganado suelto por las carreteras de La Arboleda y los montes de Triano. En la propuesta de Bildu se solicita la creación de una mesa que aborde esta cuestión con la participación en ella de la Diputación, los ayuntamientos de Trapagaran, Ortuella y Abanto-Zierbena, y los representantes de los ganaderos.

Isla de Lekeitio

Por otro lado, la Comisión ha aprobado por unanimidad una proposición no de norma del Grupo Popular que solicita que la Diputación se implique en la “recuperación de la cubierta vegetal climácica” de la isla de Lekeitio, ya que -según este grupo - el bosque



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

de pino marítimo “está en fase terminal”, como recoge un informe elaborado por la propia Diputación. Este grupo plantea que el ente foral estudie como alternativa la plantación de la encina cantábrica, una especie más acorde al clima, tipo de suelo y condicionantes del islote.